



7. ATALA: BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera eramateko hainbat baliabide erabiliko ditu:

- Baliabide fisikoei dagokienez, hainbat ordenagailu beharko ditugu eta interneteko konexio ona baita ere, aplikaziorako oso lagungarria izango litzateke; baita ere furgoneta bat beharko dugu, produktu guztiak garraiatzeko leku batetik bestera; gure aplikazio bera izango da azkenik eskuratuko dugun baliabide fisikoa.



- **Baliabide intelektual** eta **giza baliabideei** dagokienez, informatiko bat kontratatuko genuke aplikazioa sortzeko, ondoren, taldeko kideek aplikazioaren kontrola izango dugu, eta gutxinaka-gutxinaka aplikazioaren xehetasunak edota gustatzen ez zaizkigun gauzak hobetuko ditugu. Honetaz gain, gutako batek telefono bat izango du familien eskariak jasoko dituen eta nekazariei eskatuko dizkio produktuak, internet eskuratu ez duten pertsonentzat eta deia nahiago dutenentzat ere.



- **Finantza baliabideei** dagokionez ordea, bi aukera izango ditugu: Adibidez, aplikazioa eratzeko informatikoa kontratatuzko gure dirua jarriko dugu, lauron artean, bakoitzak 1020€-ko kantitatea jarriko du. Bestalde, furgoneta eta ordenagailuak erosteko, hau da baliabide fisikoak eskuratzeko mailegu bat eskatuko dugu banku batean 25.000€-koa, Kutxabank bankuan. Gainera, influenzerren hainbat kontuek guri publizitatea egingo digute, kolaborazio hauek ere gure dirutik ordainduko ditugu, bakoitzak 500€ jarritz. Honi esker, hainbat jenderen artean interesa piztuko dugu, eta gutxinaka gutxinaka gure aplikazioaz gero eta informazio gehiago ezagutuko du jendeak. Guzti hau kontutan hartuta, guztira bakoitzak jarri behar duen dirua, printzipioz 1520€ jarriko ditugu, eta maileguan 25.000€.

